Erref. kodea: LAF-203-026

Izenburua: Autobiografia eta bibliografia

P. L.

Fiches de ses articles, etc.
écrites de sa main

Atxikitzeko orena G.H.
1938 XVIII 13-5

L'auteur de « Maitena » est mort G.H.
1938 XVIII 118-120

Axular-en liburuaz G.H.
1956 XXVIII 341-344

Théâtre

Amoltzeak G.H.
1951 XXIII 18-21

Les citations d'Axular
Axular
1943 II. 38-39

A propos d'une pastorale G.H.
1952 XXIV 155-158

Autour de la Bible traduite en basque
par le P. R. Olabide, Bayonne 1959

Auzi bati datxikola G.H.
1952 XXIV 302-308

Comment la valeur de quelques suffixes
s'est précisée en basque
Eusko Jakintza
1949 III 95-98

Un bertsolari : Pierre Capdevielle
1952 XXIV 124-125 GH

Commémoration du IVe centenaire de la mort de St Fr. Xavier GH.
1952 XXIV 321-330

Théâtre
Egiazko argia
Antzerki (Tolosa)
nº 14-15

Poesie
Ene kaiolan bi xori GH.
1938 XVIII 24-25

Azkainen GH.
1930 X 517-518

Eskual-Herriaren alde (édition basque)
Bayonne 1933
Programme eskualerriste

Un desideratum sur la manière de transcrire les noms basques
1947 I, 211 Ikuska

Sur les suffixes casuels -tz et -tik
Eusko Jakintza
1949 95-98

Arandia GH
1933 XIII 481-485

Arla Lhande onari C.H.
1929 IX, 268-269

Poésie
Badea edernagorik C.H.
1935 XV 212-214

Un bel exemple : Gwalarn C.H.
1935 ~~XV~~ 154-156

Azcue C.H.
1952 XXIV 125-133

Le basque et la littérature
d'expression basque en Labourd, Basse-Navarre
et Soule, Bayonne 1942 collect. Aintzina

Berritasunaz Egan
1955 n° 5-6, 6-11

~~Disques basques~~ C.H.
1934 VII

Les basques dans le Monde, compte
rendu d'une exposition à l'Université d'été
internationale d'été d'Ustaritz
Eusk. Yakintza
1951 V, 287-292

Le basque dans l'Enseignement primaire
C.H.
1937 XVII 364-366

0 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31 32 33 34 35 36 37 38 39 40

Disques basques G. H.

1934 XIV 191, 286, 383
1953 XV 286

Bertzen irakurgaietan G. H.

1929 IX 94, 190, 248,
1930 X 89, 170,
1932 XII 129
1933 XIII 417

Les études basques à travers les siècles

G. H.

1932 XII 139-152

Georges Hérelle

G. H

1935 XV 512-511

Conte

Harpeko hauzra

G H

1936 XVI 373-378

L'expression de l'aspect en basque

Eusko Jakintza

1947 I 305-313

Hazila edo hilen ilabethea

Bayonne 1943

Enseignt

L'État et l'enseignt du basque

Aintzina

1942 III n°6 9-10

---

préface à Oxobi

Iteialdik gezura

G. H.

1934 XIV 11-12

Eus Kaz

Georges Lacombe

1949 tiré à part de "Herria"

Discours basque d'entrée

à Euskaltzaindia

Biblea Eskuaral Herrian

1958 IX 495-501 Euzko-Gogoa

L'enseignement des langues régionales
Préface à la législation
G. H.

1959 XXXI 137-144

Aphezak bethi azken hitza bere G. H.
1951 XXIII 118-119

Debrusa G. H.

1951 XXIII 151-152

Deux chansons de Beñat Mardo
découvertes par le R. P. Lhande G. H.
1950 XXII 293-299

Châteaux ... en Espagne G. H.
1934 XIV 287-288

Deibat G. H.
1924 IV 741-744

Autour d'une glose basque du
Xe siècle G. H.
1933 XIII 185-186

Aphez eskaldun batek behar
duheen kulturaz G H
1952 XXIV 75-84

Curiosités linguistiques : Behereharta

1933 XV 259-261 G.H.

En Sorbonne (G. Guillaume. Recher

1936 XVI 134-138 G.H

---

poésie

Dein

1935 XV, 503-504 G.H.

---

poésie

Haur hilaren arreba eta ama

1923 III 101-102 G.H.

---

poésie

Chantadin G.H.

1928 VIII 225-227

Grammaire basque

navarro-labourdin littéraire

1944

1962

1978

12

Grammaire

Gure herria

tiré à part

1929 : 220 pages

Phonétique et Parties du discours

autres que le verbe

1937 fascicule de 80 pages,

étude du verbe amorcée en

collaboration avec G. Lacombe

– 1937 nommé à Toulouse

– Guer. – G.H. disparaît (1950)

– G. Lac. mort en 1947

[solte dago, ez "paquet"an]

Importants dans ce paquet :

1 Article basque sur Goyenetche

2. Articles français : sur les
- collaborateurs de Eskualduna
- sur Etcheberry, aumônier
- sur Ithurry

3. Article basque sur la Revue de l'exposition

4. Article sur les assassins d'Arcarat...

5. Article sur l'église

6. Article réclame sur le Dictionnaire de Darricarrère

LAFITTE KAZETARI

Piarres Lafitte

autobiografia

21.5.01 - Luhoson sortua

24 - 23 urtetan apeztu.

26 - Uztaritzeko semenarioan erakasle

29 - Euskaltzain urgazle.

1947 an . euskaltzain oso -

23.02.85 - Baionan zendua.

2

Sortzea: 21-5-01 Luhoso Salaberrian
Aita Baigorriarra, ama Uztaritztarra
Amatxotan Senperen Elisabeth Irigoyen
andrearen gomendio.
Haur ttipian amasoh Uztaritzen altxatua
Aita Urruña-Herbarun errezebidore jarri
zenean Uztaritze-Burtinagorri utzirik
Herbarun Burtinagorrizat bildu aita
ama anaia eta aitatxi-amatxiekin
1908-an aita-amak ilabete barne hil.
Ithorrotzeko osaba batek umexurtza
bildu.
11 urtetan Belokeko semenarioan sartu
17 urtetan Baionako semenarioan hant
sartu.
Han St Pierre jaun apezak euskarari
lot-arazi. ~~[illegible]~~ 23 urtetan apeztu
~~[illegible]~~ Tolosan lizenziatu
Handik lekora Uztaritzeko Semenarioan
sartu 25 urtetan eta han egon
orai arte, salbu gerla denboran, ~~[illegible]~~
lau ilabete soldado ibilirik

Erakutsi ditu Frantsesa, Alemana, Latina
greka, katixima

Arta haurtu gazteen altxatzeaz
kudeatzen zituztarik Cercles d'études, jec,
Scouts eta abar, konferentzia zenbait
handieneri emanez

Adinaren gatik eskola utzi behar-eta
Semenarioan gelditu da bere liburuekin
bainan ez alferrik egoitekoi

28 urtetan Azkuek sar-arazi
ninduen Euskaltzain-urgazle, Xenophon-en
liburu baten euskaraz itzultzea galdegin
zautalarik titulu horren ordaintzat.

1947-an Lacombe-n orde ezarri
ninduten euskaltzain osoz eta uste dut
lagun jarraikia nautela.

1944-etik hunat Herria kazetaz
arte hartzen dut, nahiz zuzendaritza
utzia dudan Hiriart-Urruty eta Larre
jaun apezeri

Itorrotzeko izaba ez baitzakien biarnesa baizik, umekumetuz geroz etxen biarnesa ikasi nuen eta euskara arrotz zitzaitan.

S' Pierre apezak akulatu euskara ikas nezan eta karraskan lotu.

1917-an Itorrotzeko erretora Arnegirat aldatu baitzuten, bakantza denboran beregana(t)zen ninduen bere parropia berrirat eta 7 urtez euskara berriz ikasten nuelarik, uda oroz katixima egiten nioten egun guziez Arnegiko haurreri euskaraz, aprendizku ederra baitzitzaitan. Ikasik Arnegibarko nintzan lekuko mintzairea, usaiak eta ixtorioa gogoan harturik.

Haste-hastetik eman nintzen euskal liburuen ikertzeari, hitzak bilduz eta erran-moldeak bereziz. Hiztegi eta gramatika lanetan ez naiz behin ere asperttu.

Bainan ez zitzaitan aski.

Eskualduna kazetan 1920-ean berean hasi nintzen bertsu publikatzen Piarres Hikia sinatuz. Gero berri zenbait ere igortzen nituen eta 1925-etik aintzina artikuluak P.L. sinaturik. Michel Iriart esplikatzen baitzuen Ebanjelioa Eskualduna kazetan, hil zelarik, haren ordain ezarri ninduten eta zenbait urtez bururatu nuen lan hori.

1934-ean ez nuen Eskualduna aski abertzale kausitzen ez eta aski sozial eta Eskualduna baztertu gabe Aintzina ilabetekaria agerrarazi nuen: ez zuen iraun 32 ilabete baizik.

Artetean Gure Herria aldizkarian ere asko izkiriatzen nuen.

Hitzaldi zenbait galde egiten zaizkidan hala nola Baionan, Donostian, Hazparnen, Angelun; prediku batzuez bertzalde.

Eskuaraz

n

- Julien Heguy apeza
- Ithurralden kantuak
- Nottakarien legea
- Eskual-herriaren alde
- Herriaren aldeko kantuak
- Murtuts eta bertze
- Hazila
- Idek eta zabal gogo-bihotzak
- Georges Lacombe
- Platonen hiru arpegi
- Spinoza
- Eguberri aroa
- Gure herri-literatura
- Topet Etxahunen bizia laburzki
- Atlantika Pyreneetako lehengo sinesteak
- Mende huntako eskual idazle batzuen gogoetak
- Gazteluzar olerkari
- San Frantsesen ordenak 13-garren mendetik hunat iparaldeko euskaldunen artean
- Amodiozko kantuak ipar aldean

Théâtre en basque

- Orratza
- Ta[l]balen mertzikak
- Hil-bizia
- Eguberri
- Egiazko argia
- San Frantses Xabierekoa
- Gonzalve

Recueils de chansons populaires

- Kantuz
- Errepikan

- Ebanjelio Honda (2 éditions)
- Eskualdunen loretegia

(31)

[illegible] [illegible]

Linguistique basque

- Grammaire basque (3 éditions)
- La proposition exclamative en basque
- L'expression du procès en basque
- Au sujet des affixes du verbe basque
- Deux valeurs de ke dans le verbe basque
- Au sujet du dictionnaire étymologique de Löpelmann
- Cinq dictionnaires basques
- Évolution de la déclinaison basque
- Apport de René Lafon aux études basques
- Luis Michelena et son œuvre
- L'évolution régressive en basque
- Pour un dictionnaire du verbe basque
- L'accentuation labourdine au XVIIIe siècle

* * *

- Les études basques à travers les siècles
- Le basque et la littérature d'expression basque en Labourd, Basse-Navarre et Soule
- L'État actuel des Études basques (1956)
- Les écrivains basques et les courants de la pensée contemporaine
- La poésie de Gazteluzar
- Le Pe Blaise Bubuny auteur basque
- Marcel Etchandy, poète basque

- Canto dans la littérature basque
- J.P. Sartagaet, [illegible] et musicologue
- J.B. Etcheberry ; Almanakaren orria (1866-1898)

Basques sur l'Encyclopedia Universalis

- Le Serment d'Hippocrate en basque
- L'Etat et l'enseignement du basque
- Homère et le basque
- Le calendrier dans Etcheverry
- Langue et maisons basques chez les Israélites
- M. Sarrhandy
- Martin Landerretche
- Mr. Le maître M. le Dr Etchepare
- La nouvelle traduction basque de l'Imitation
- Paulo Zamarripa
- [- Pour ou contre la possibilité du verbe basque)
- [- Rapports des formes et des formules en langue basque)
- Le régionalisme dans l'Enseignement secondaire
- Rossini et musique basque
- [- Origine des noms propres basques)
- « Pastorales »
- Le [illegible] de François Michel

6

Aphy euskal de halek hebn lehen Aulhara;

Arandia

Aut Alan Glogs hagi don [illegible]

Aut de la Bible traduite en basque par le P. Olabide

L'autre de Madura (Doangi)

Abadan Lilaren ; Celah [illegible] ; Gernika [illegible]

& Azcon Resurrección

Azkaina Etxeondoko euskalgaran

Les basques de la mode... Extrait de 1951

Un hel exemple gkalarn

Ur bersolari: Pier Capdevielle

¿ Bersolari

– Biblia Eskuaran

– IV Centre de la [illegible] de St-Sébastien

– Quand la [illegible] casal s'est précisée en basque

– Désirdam sur la [illegible] de travaux en [illegible] sur la carte

– L'ensemble des langues régionales en [illegible] à la [illegible]

[illegible]

Une expo à Hendaye (Claude [illegible])

- Jean [illegible]

- Un [illegible] dehors (id)

- Jaurlanik Ereman

- Larreshara

- Un [illegible] de la [illegible] de Sorhe [illegible] dit [illegible] Mme [illegible]

[- [illegible] de la [illegible])

[illegible] en [illegible] [illegible]

Pour la coupe de [illegible] : le [illegible]. Grand Adam de l'île J. B. Bardin

Perchen en [illegible]

([illegible] [illegible])

San [illegible] [illegible]

- [illegible] Schaub-en Euskaltzen [illegible] egun

[[illegible] d'1 [illegible] hi, [illegible] bi)

Dans 1. [illegible] d'une [illegible] vers les 1800

Dans l'[illegible] de [illegible] relative à P. [illegible] [illegible], [illegible] (Jn Haritschelhar)

Des tendances de l'Expo [illegible] : Jean de Haraneder
[illegible] par Hamel

Le Musée de Ballet [illegible] la [illegible] [illegible] de [illegible]

[illegible] d'un de l'[illegible] [illegible]

[illegible] de [illegible]

Lettres [illegible] de l'[illegible] de [illegible]

[illegible] [illegible] [illegible] expo

[illegible] [illegible] [illegible]

[illegible] [illegible] de 1850 à 1860

Vers basques

- Arla Xhandu onari
- Ibar aldetik
- Sbas-~~ka~~indian
- Ibarlusi gaztea
- Milsker
- Zurrinkelaria
- Ur xirripa da
- Ene kaiolan ki xori
- Sent actes notariant de 1784
- En sarbon (Mr Guichbam Reiver)
- Hemiaren aldeko [illegible]
- Ham hilaren ardita eta ama
- Deia
- Xantedin
- Debrusa
- Baden deus edermeak ?

Iturralden karkuak

Ajouter aux études linguistiques :

- Pour ou contre la passivité du verbe basque
- Quel est notre verbe [illegible] ?
- Quelques suffixes du pluriel
- Le sens de *ohi* ?
- Le suffixe *-kin*
- La logique en orthographe basque
-

En collaboration

Avec l'abbé Ph. Aranart : Rédaction et publication du Dictionnaire basque-français de P. Lhande, à partir du 3e fascicule.

- publication de Mayatza de Julien Heguy (2 éditions)
- Vocabulaire français-basque, mots groupés d'après le sens (2 éditions)

Avec l'abbé Pierre Etchendy : Kantuz noté

Avec M. Louis Dassance : Kantu, kantu, kantuz recueil de chansons populaires

Avec André Zaunver : Lexique français-basque

Avec Eugène Goyhenetche : Une lettre du vicomte de Macaye, député de la noblesse du Labourd à ses électeurs (1790)

avec Marc Legasse : Gaztibeltzaren kantak.

Mgr. S' Pierre linguiste et écrivain basque

Mgr Mathieu notre maître à penser

— Je n'ai pas noté ici mes contributions
à l'Eskualduna et à Aintzina

etc.

Ni les notes bibliographiques qui
se complètent par certaines des Herria et
et que Herria

etc.

Je n'ai rien marqué de ma
collaboration à Herria

Editions

Elizako liburu ttipia, de Simon Durruty
revu, augmenté et corrigé (2 éditions)
Buruchkak, du Dr Etchepare, avec une introduction
Kantuz, recueil de chansons populaires
Kantuz, édition notée
chansons de P. Ibarrart, avec biographie de l'auteur
morceaux choisis des chansons Hirart-Urruty :
a) Zer da zer ; b) Mintzaira, aurpegia, gizon ; c) Zezenak errepublikan
Dr Etchenave : Eskualzaleen buru
Poemes de Salbat Monho (1749-1821)
L'art poétique basque (introduction de P. L.) de Oyhénart
Manex Etchamendy bertsularia (1re série)
Morceaux choisis de Mgr. St Pierre
Oxobiren lan orhoitgarri zonbait
Haz-ug-ka de Zehuru (Arotçarena)
Lettre de Morel à Oyhénart
Gure elizmearen frogak, du chanoine Lassalle (posthume)
Anbeitzarburuko bihamenak, de Barbier
Les principales versions basques du Pater en Labourd, Bas Navarre et Soule du XVIe siècle à nos jours.

Théatre

A l'écoute de mon âme (chœur parlé)

Egiazko argia (drame)

Amaltza, comédie

Itzal lazoa, comédie

Gonzalve, traduction en [illegible]

Onaltzaten merkatuak, drame

San Frantses, évocation de St François

Gau-erdi, évocation de Noël

Amelzach, comédie

Sarea

10

Eskuaraz

- Julien Hegoy apheza
- Ebanjelio Hitza (2 edit.)
- Eskualdunen loretegia
- Hazila (hilen ilhabetea)
- Eskual-herriaren alde
- Mutiko eta neskatxa
- Aitzindarien legea
- Gerezia karrika
- Aita Blas Mendiondokoa
- Giristinoa bertsularia (sermoa)
- Atlantika-Pirenetako sinesle zaharrak
[- Bai eta ~~[illegible]~~ bait} (Itzulpena)
- Baztien jaun apeza
- Batzenabarreko jostetu bat: Atso eta Tapo
- Bernard Gestelugar olerkaria (discurs)
- Egunberri aroa eskualdunen ohiduretan
- Erlisione paganoak eskualde hauetan (diruan)
- Eskual-hitzak nola erretirago eta hobeki ikasi
- Euskal ipuinak
- Eskualdun mezintza bat: Simon Esserne (1891-1972)
- Eskualzaleak ikusten
- Herri-literatura (estudio bat)
- Idatz eta zahar gogo-hitzak (liburuxka)

[– H eta Z-ren arteko aldakuntzaz oharpen labur bat}

– Larreko euskaltzale eta idazlari (hitzaldi bat)

– Manuel Lekuona euskaltzale (hitzaldi bat)

– Mende hasierako Euskaldun idazleen pentsakerak (hitzaldi bat)

– Pierre Topet Etchahun (liburuxka)

– Zelestin eta Zezilla arteko perpausa (1808)

– Zer dakigu Leizarragaz? (hitzaldia)

– Hitza eta otoitza (prediku bat)

[– Toki eta hegi}

– Transcription des noms basques sur la Carte et stat major

– Zahar eta berri (prediku)

(– Deux chansons basques de Mardo inédites)

– Ithurralde Haulnah

– Maria Lazo

– Lihon

– Harzeko harria

– Matalas

– S. Pierre apezpikua

Editions 11

- Elizako liburu Ttipia, de Ourruty
- Buruchkak, du Dr Etchepare
- Zer dager, petit recueil du chan. Hiriart-Urruty
- Ibarrart-en kantuak
- Les meilleures pages de Mgr St Pierre
- Oxobi-ren lan orhoitgarri zenbait
- Manez Etchamendy bertsularia
- Les oeuvres de Salvat Monho, texte traduction et notes
- Antzitzarduruko lukamiak, de J. Barbier
- Gure erlisionearen frogak, de P. Lassalle
- Har-uzka, de S. Arotçarena
- 2 recueils du ch. Hiriart-Urruty précédé d'une préface
- Andre dena Maria de Heguy (Briscous) et Heguy (Ustaritz)

Diccionario Retana de
Autoridades de la Lengua vasca

Manuel de la Sota, Pierre Lafitte y Luis de Akesolo

sei lankiderekin

en 10 tomos de 432 pp.

En collaboration

- Aranart - Lafitte : rédaction du Dictionnaire basque-français du P. Lhande à partir du 3e fascicule
- Aranart - Lafitte. Vocabulaire basque-français de mots groupés d'après le sens
- Aranart - Lafitte. Publication de Macalza de Julien Heguy
- Lafitte - Etchemendy : Mantuz noté
  Dassance - Lafitte. Hauta, Hauta Khantore (parodie populaire)
- Tournier - Lafitte : Lexique français-basque

77
~~[illegible]~~ livres et brochures

33 almanachs en collaboration

Collaboration à une douzaine de périodiques

- Courrier de Bayonne
- Le Carillon
- La Liberté du Sud-Ouest
- Son trantses

La Presse

L'Ordre Nouveau

Le Fédéraliste

Basque Eclair

Eusko Jakintza

Forbes

Sciences Lettres et Arts de Bayonne

Bulletin du Musée Basque

13

- Cinq dictionnaires basques
- Luis Michelena et son œuvre
- L'État actuel des Études basques
- La poésie de Gasteluzar
- L'art poétique d'Oyhenart
- Un dictionnaire étymologique du basque du Labourd, de la Soule et de la Basse Navarre par Löpelmann.
- Lettre de Moret à Oyhenart
- Apport de René Lafon aux études basques.
- Les Congrégations de 1850 à 1900 dans le diocèse de Bayonne
- Manech Etchamendy
- Compte rendu de la thèse principale de M. J. Haritschelhar sur Pierre Topet-Etxahun.
- Critique de Etxahunen bertsuak gipuzkeraz

28

Français

- Les études basques à travers les siècles
- M. le Chanoine Gratien Adema et M. l'abbé Barbier
- Le basque et la littérature d'expression basque en Labourd, Basse-Navarre et Soule
- Pour le Pays Basque
- A l'écoute de notre âme
- Erreurs dans le culte marial au diocèse de Bayonne
- Grammaire basque (1944)
- Grammaire basque (1962)
- La proposition exclamative en basque
- L'expression du procès en basque
- Autour de la Bible d'Olabide
- A propos de gizon bat et gizon bi
- Georges Lacombe et Landeretche
- Les écrivains basques et les courants de la pensée contemporaine
- Le Père Blaise Balagny capucin et auteur basque
- Propositions pour un dictionnaire des verbes basques

éléments d'autobiographie

"Euskaldunak" deitu agerkariari behar omen diot salatu zer egin dudan Eusko-Jakintzari buruz. Nihaurek badakit zer egin gogo nukeen, nola naizen lanari lotu, zonbat entsegu ere jalgi zaizkitan eskuetarik. Haatik bertze batek behar luke erran, ene chedeak bethe ditudanetz, ene lan-entseguek ez dutenetz "kausi" baino "huts" gehiago egin. Nor gure hetaz mintzatzeko ez gira naski den gutienik gai: hurbilegi izaiteak itsutzen ohi gaitu, edo bederen okertzen eta lausotzen.

Hobe nuke beraz ichilik egoitea; bainan laster ihardok lezakedate alferraren estakurua dela, lanaren guti uztea. Ahul bada ahul, goazen bada gure sailari, eta barkatu pikari, ez badu errechiñoletaren kanturik!

* * *

Errankizuna bada: arroltzetik oiloa. Zugun ikhus zerk bildu ninduen eskual gaieri ohartzera. Zazpi urthetan galdu bainituen aita-amak, izeba biarnes batek hartu ninduen bere etcherat eta ezinbertzez erdaraz mintzatzen ginen goizetik arrats: auzoan eta elizan ere entzuten nuen segur eskuara, Ithorrotze

VIIIme CONGRÈS INTERNATIONAL
D'ÉTUDES BASQUES

Août 1954

deitu herrichkan baiginauden, Chubero hegal bazter batean. Adituaren adituaz banituen gogoan ehun bat hitz bederen kokatuak, bainan behin ere ez nintzen heien erabiltzerat ausartatzen. Aphezgai sarturik ikhastegi ttipian, Ahurtin baitzagon orduan, bere Larresoroko ohantzetik haizatua, ez nuen eskuaraz jazko haizeaz baino achola gehiago: astia nuelarik, frantses neurthitzetan lakhet nintzen, bai eta ere belhar edo landare keta.

Baionako aphezgaitegi handian, Saint-Pierre jaun aphezak ene izaba batekin ahalge-arazi ninduen, zertako bada ahanzterat utzi nuen aita-amen mintzairea; eta, ilabethe pare bat duda-mudan egonik, erabaki nuen, baietz, eskuara ikhasiko nuela.

Ez nuen ez hiztegirik, ez gramerarik: Saint-Pierre jaun aphezak, aiphatu niozkalarik, debekatu zauzkitan, baizik-eta nihaurek behar nituela hitzak bildu eta mintzaire-itzulikak hauteman, lagunak entzunez eta idazkiak irakurtuz. Bainan eskuarazko liburuak eta agerkariak irets ahala emaiten zauzkitan eskurat: Arbelbide zenaren "Erlisionea" arthamendatu zautan oroz gainetik, gogoz ikhastekoa zela, garbiz eta ederrez.

Ordutik ez naiz behin ere gelditu

VIIIme CONGRÈS INTERNATIONAL
D'ÉTUDES BASQUES

Août 1954

eskuararen ikhertzetik : Polosan hiru urthe egonik mintzaire zonbaiten ikhasten, bethi gure hau naukan gogoan : zerk zituen huntarik berechten, zertan zuketen eite, bazutenetz zerbait ahaideko.

+ + +

Goizik hasi nintzen bertsu egiten eta ichtorio kondan, "Eskualduna" astekarian Adema kalonje zenak emaiten baitzautan atherbe. Gerochago, zazpi urthez, Ebanjelioa azalkatu dut agerkari hortan berean, eta bertze frango artikulu ere argitaratu. "Gure herria" ilabethekariak ere bildu ninduen, eta hamar bat urthez atchiki dut haren idazlaritza (1928-1939)

1940-eko gerla-aintzinean ilabethekari ttipi bat sortu nuen: "Aintzina", bipher gatzak ausarki zariozkona.

Gerla-ondoan "Eskualduna" zaharra itzalirik, Mgr Saint-Pierre eta zonbait lagunek deitu ninduten astekari berri bat behar ginnela sortu, izena ere eman zioten "Herria", eta utzi zautaten haren erabiltzeko lana : oraino eskuetan daukat, hamargarren urthea airoski deramagula.

+ + +

VIIIme CONGRÈS INTERNATIONAL
D'ÉTUDES BASQUES

Août 1954

Lafitte kazetari

1. Kazetekin ukan dudan lehen egitekoa, itzultzen izan da. Igandetan, bereter nintzalarik, jaun erretoraren partez, goizeko mezatik landa, eliza-atean saltzen nituen biga: La liberté du dimanche eta Eskualduna. Bainan aitortuko dautzut ez nituela ez bata ez bertzea irakurtzen.

Belok-eko Seminario Ttipian Vogel donapaleutar adiskide batekin, gure eskoletako azken urtean etxean etxeko astekarino bat atera ginuen: Le Palmipède. Ez zen ixilikakoa. Harismendy jaun apezak zenzura egiten zaukun. Bainan zetabe larria bazerabilan. Ez zer punttatukorik belarik. Gure piko eta zirtzak alegerak jasaiten zituen, umore onaren fagoretan. Gure eskola-lagunen jostatzeaz bertze xederik ez ginuen, ez politikarik, ez filosofiarik.

2. 1919-iko bakantzek serioski bildu ninduten kazetalaritzara. Bazkoz sartu ~~ginuen~~ ginen Baionako apezgaitegi handirat eta udako bakantzak biziki luzeak ukan ginituen. Hain xuxen gerla ondoko lehen deputatu bozak ziren. Egun oroz Le Courrier de Bayonne irakurtzen ~~gu~~ nuen eta gorri-xurien arteko politikak burua berotu zautan. Joseph Garat radikal-sozialistak Uztaritzen egin zuen bilkuran aditzale aurkitu nintzan eta Le Courrier delakoari igorri nion ene gisako artikulu

T.S.VP →

jostagarri bat. Ene izenik gabe agertu zen, bainan bazterretan ukan zuen elepide. Amédée Larrieu zenak sustatu ninduen bere kazetan aintzina bereziki emaiterat. Bietan galdatzerik ez zitzaion behartu. Prosa ala bertsu, ari izan nintzan, hastapenean bozeri buruz, gero edozoin gairez, beti frantsesez, biper ala gatzez neure lanttoak pizkortuz.

Eskuarari lotu nintzaionean, berehala ohartu nintzan eskual prosa biziki zaila zela eta ez nintzan menturatzen hitz lasoz izkiriatzerat. Bertsu egiten hasi nintzan, baizik-eta irakurleek poesiaren gain emanen zutela ene eskual joskeraren jakin eskasa. Eskualduna kazetan hola sortu zen Piarres Ttikia izeneko bertsulari bat, Blaise Adéma kalonjearek akulaturik. Emeki-emeki ausartatu nintzan eskual prosaz ere idazterat bai Eskualduna astekarian, bai Gure Herria aldizkarian. Hunlan Laurent Apeztegui-k sustatu ninduen, 1924-ean.

Tolosan ixtudiant nintzalarik, Baionatik ukan nuen Baruck andere baten deia. Neskatoko talde batekin ager-arazi nahi zuen aldizkari "feminista" bat Le carillon des jeunes Akitaniako. Laguntza-eske heldu zitzaitan, Uztaritztar batek ene adreza emanik. Anderea ez nuen

ere idazterat bai Eskualduna astekarian, bai Gure herria aldizkarian. Hunlan Laurent Apeztegik sustatu ninduen 1924-ean.

Apeztu-ta Tolosan istudiant nintzalarik, Baionatik ukan nuen Baruch andere baten deia. Ameriketako neskatoko talde batekin eneleixta a feministas, bat, Le Carillon des Jeunes izenekoa nahi zuen argitarat eman. Laguntza eske heldu zitzaitan, Uztaritzeko batek ene zuzen-bidea emanik.

Andere hori ez nuen ezagutzen, bainan iduritu zitzaitan haren xedea ona zela eta eskual-talde bat hartze zuela. Pierette Labé alegiazko izenaren pean lotu nintzan lanari. Orok uste zuten idazle hori neskatoko bat zela, komediak ez zezaken iraun. Bizpahiru urteren buruan taldeak apailatu zuen Biltzar handi bat eta galde egin Pierrette-k egin zezan hitzaldi bat. Hitzaldia idatzi nuen eta Baruch andereari eman berak irakurtzeko, eri nintzalakoan. Handik laster jakin zuten Pierrette Ameriketarat itzuli zela.

Artean noiz behinka zenbait berri edo artikulu igortzen nioztan Eskualdunari, P.L. sinaturik. Bainan lan luze bati beharko nuen berantago lotu.

1924-ean Mitel Iriart Uztaritzeko erretorak hasi zuen astekarian Ebanjelioaren itzulpen bat, bere baitako argitasun baliosez aberasturik.

M.S. 1929 hil baitzen, Saint Pierre jaun

ezagutzen. Bainan Pierrette Labé izen-ordetzat harturik bizpahiru urtez gazte horiei eman nioten ene ilabeteko laguntza. Uste zuten Baionako neskatxoño bat nintzala. Komedia horrek ez zezaken luzaz iraun. Biltzar bat apailatu baitzuten Bordelen, nahi zuten Pierrette entzun. Baruch andereñoaren medioz galde egin zioten hitzaldi bat. Hitzaldia idatzi nuen, bainan Baruch arartekoari eman nion Pierrette-n orde irakur zezan, gaixo Pierrette erixka zelakoan. Handik laster jakin zuten Pierrette Amerikelarat itzuli zela.

Frantsesez La Liberté du Sud-Ouest egunkarian P.L. letrekin sinatzen nituen kulturazko lan batzu, frantsesez, bainan Eskualduna utzi gabe. Huntan ez nuen erabiltzen euskara baizik, gai desberdin asko P.L. izenpeturik. Bainan sail luze bati lotu beharra zitzaitan.

Michel Iriart 1924-ean hasi zen Eskualduna hortan Ebanjelioaren ager-arazten argitasun baliosez laguntzen zuela. 1929-an, Uztaritzeko erretor hori zendu zelarik, Saint-Pierre jaun kalonjeak galdegin zautan ea M.I.-ren sailari jarraikiko nintzaionez. Baietz, eta zenbait urterik barne lan hori bururatu nuen, aste guziez ene Ebanjelio zatia itzuliz eta argituz.. Uste dut lan hori

izan den ene lan luzeenetarik bat. Soubelet-en denboran bukatu nuena.

Soubelet horren adixkidea nintzan, nahiz ez ginen biziki adox sozial-gaietan; ez zuen ere ulertzen muguz haindiko euskaldunen alderat nauhan atxikimendua. Ene zenbait ikus-molde nekez onhar zezazken bere astekarian.

Nolazpait nahi nituen bada argitaratu eta Euskalherrizaleekin hedatu, itzultzaile baten bidez. Elizaren aldetik ez baitnuen mahurrik izan, artoski apailatu nuen ene erakaspena Paris-eko Aita P. Lallement eta Yves de la Brière erakaslez baliatuz (*Cours de Droit international* eta *Principes catholiques d'Action Civique.*)

Eskual-herriaren alde liburuxka batean bildu nituen ene pentsa-bideak eta Aita Yves de la Brière jesuitak ikuskatu zautan lan guzia.

kalonjeak galde egin zautan eta sailari jarraikiko nintzaion. Hortarako liburu meltzo bat bildurik, zenbait urte eman ditut astez aste Ebanjelioaren itzultzen eta azaltzen. Zerenda horiek bateratuz balitake liburu gotor baten gaia.

Sorbalet jaun kalonjearen egunetan burutu nuen Ebanjelio-argitze hori.

Artean erdaraz laguntzen nuen Bordeleko La Liberté du Sud-Ouest, La Petite Gironde kazetari gorri bat ihardoki beharrez

Baionan La Presse agertu zenean Zazpi izen-ordearen pean erdaraz ager-arazten nituen kulturazko ohar zenbait.

Egia erran, kazeta horiek oroh ez zindulen arras aseltzen, izan zadin jendeen, eskualdeen, herrien, erlisionearen, eta kulturen eskubideeri buruz.

Herrizaleen edo hobeki erraiteko eskualherrizaleen artean gaihoitzat erabiltzen gintuen ideiak nahi baiginituen argitu eta hedatu, eratuki ginnen ilkitelari xume baten ager-araztea

Bainan Elizaren aldetik ez bainuen nahi erraitekorik piztu, artoski

Aski lan izan nuen lehenik hegoaldeko haurrez arta hartzeko Manuel de Inchausti jaunaren lagun eta gero soldado hartua izan nintzan. Azkenean Alemanen manupean kausitu ginen eta behar ginaizkien ikhardoki.

Marc Légasse-k Aintzina berri bat eraiki zuen gazteagoko lagun batzuekin eta hortan ere parte hartu nuen lankide gisa.

Amerikanoeri esker Alemanetarik askatu ginenean, Eskualduna kondenatua izan zen, gerla denboran iraun beharrez etsaieri ez baitzeien beltzuririk egiten. Ordeko buruzagi Arotçarena ere gakhozetu zuten

Zenbait ilabetez eskuarazko kazetarik gabe ginauden iparraldean. L. Léon Uztaritzeko erretora huts hortaz griñaturik joan zen Mgr. Saint-Pierre-en ikusterat, eta hunek bildu zituen adixkide multxo bat. Pentsatu zuten lagundeko nituela kazeta berri baten agerrarazten, Alemaneri buruz hezgaitz agertu nintzalakotz, bertze askok ez bezala. ~~Bida~~ Deitu nindulen Milafrangarat, bilkura bat izan ginuen, kazeta Herria deituko zela erabaki, eta ene gain eman Comité de Libération delakoari agertzeko behar ziren baimenen ardiesteko. Ez zen lan erreza. Comité hortan ez ziren biziki bero apez baten eskuetarat kazeta baten uzteko. Bazen nunbait erient ohi bat ezkertiarra, gede bertsua zauhana eta itsuren arabera hura nahiagoko zuten fagoratu ni baino. Bizkitartean Guillaume de Hiriart eta Defos du Rau jaunek sustengatu nindulen eta onhartarazi guk ere ukan ginezan eskuarazko astekari bat

Bainan ez omen zuten berek baimenik emaiten ahal Paueko Comité baten abisua gabe, ez eta Pau-ekoak Bordeleko « Bureau de Presse » delakoaren sinadura gabe. Aiduru nindagon xifritua, eta azkenean nihaur juan nintzan Bordeleko « rue Judaïque » famatuat. Han erran zautaten nehork ez zuela ukan heien baimenik kazeta berrien ateratzeko, aski nuela bertzek bezala egitea.

Bainan apeza bainintzen behar nuen Elizaren baimena. Hain xuxen apezpikurik gabe zagon diosesa Mgr Vansteenberghe hiltez geroz eta Mgr Terrier ez zen oraino Baionarat etorria. Mgr. Daguerre-k egiten zuen apezpiku-ordaingoa eta ez zuen bere gain hartu nahi ukan baimenik emaitea. Mgr Saint-Pierre-k bere gain hartu zuen egitekoa, gero Mgr Terrier-ek ikusiko zuela zer egin.

Herria sortu zen 1944-eko hazilaren 14-ean eta apezpiku berria sartu zenean izan gintzaion Mgr St Pierre-ekin. Hunek erran zion premiaz aintzindu zitzaiola kazeta agertu beharrez eta Uztaritzeko Garat superiorari galdatu ziola tatilka utz zezan kazetalari. Alabainan jaun apezpikuak beharko zuen hautu hori finkatu ala baztertu. Ihardetsi zuen ez zuela arrazoinik baztertzeko, ez bainindien ezagutzen. Gero ere agertuko zela ene lanaren balioa.

Beraz engoitik jarria nintzan. Bainan ez griñarik gabe. Dirurik ez. Paperik ez. Elizalde-k

bi mila libera eman zauzkitan. Bertze nehorek ez pitik. Eskualdunak Soubeleten egunetan zortzi mila irakurle ukan baitzituen, azkenerat 1.200-etarat jautsi zen, haren Alemanen alderako politika askok ezin jasanez. Beraz euskararen irakurtzeko usaia parte galdua zen. Bertzalde Eskualdunaren azken adiskideek ez zuten aise sofritzen kazeta berria Aintzina zenaren usaina senditzen baitzioten. Esperantza zuten goiz edo berant Eskualduna berpiztuko zela. Ez da erraiteko baizik nehoiz ari nintzala. "Darracq" inprimerian jalgitzen zen kazeta La Résistance-ekin, eta hunek bere egin-ahalak egiten zituen gure trabatzeko. Aldiz "cenzura" ezarri zaukuten Comité de libération delakoak eta komunixta ginuen hain xuxen jorratzailea. Hastapenean Eskualduna kazetako berriketari ohi zenbait jarraiki zitzaizkun Mgr Saint-Pierre, Ototz, Dassance eta abarrekin. Heieri gazte zenbait kurutilatu zitzaizkien, hala nola Saint Louis eskolako erakasle pare bat.

Courrier-eko inprimeriarat pasatu ginen, hobeki izanen ginelakoan. Egia erran, gauzak errexak zitzaizkun. Irakurleak ari ziren emendatzen, frango pollikí.

Etxeriek pentsatu zuen galdu behar nindutela. Ybarnegaray deputatuak lagunarteko batean Terrier jaun apezpikuari erran zion Baigorrin eskandala

gorria eman nuela frantses bandera hedatzen eta Marseillesa kantatzen zuten batez : jende guzien bixtan jarri omen nintzan buruhastu gabe Frantziaren mesprexuz.

Mgr Terrier-ek deitu ninduen ikusteko zer ihardetsiko nion. Egia erran nion, ez nuela sekulan izan Baigorrin ez bertze nehon holakorik egin. Egin zezan inkesta bat. Aipatu zuten egunean hain xuxen ez nintzan Baigorrin. Jaun apezpikuak ibili zen lekuko bila eta ez atzeman. Ybarnegaray-ek aitortu zion ez ninduela berak ikusi norbeiti aditu ziola, bainan ez omen zen oroit nori. Mg. Terrier-ek karta bat igorri zautan : « Enquête favorable, tournons la page. Patience ! »

Bainan partidak ez ziren etsituak. Gerozago Herria-ren bulegoko ene lagunak berotu zituzten, ene kargutik ~~[illegible]~~ kanpo bota behar nindutela.

Bildu ziren Hazparnen ene ixilik eta elgar aditu zuten hortarako. Nortbaitek salatu zautan eta berehala lagun bakotxari letraño bat igorri nion, lehen bai lehen izkiria zezadan zer pentsatzen zuen ene lanaz eta etortzeko ondoko ortzegunean Le Courrier inprimeriarat ; han jakinen zutela ene xedearen berri.
Mgr Saint-Pierre-k ez zautan ihardetsi. Oxobik ene aldea hazaukan. Bertzek ziotem bakotxak bere maneran ez zirela ene politikarekin akort.

Ortzegunean denak hor nituen Le Courrier-ko sala batean. Ekar-arazi nioten kafea ~~eta~~ ondokoak. Mintzatu ginen ~~egun~~ aro ederraz ... Azkenean Mgr St Pierrek galde egin zautan zertara bildu nituen.

Kolonjeak galde egin zautan ea ordaindurako nuenetz Ebanjeliozale zena, haren sailari jarraikitzeko. Baietz, eta hortarako dokumento eta liburu beharrak bildurik lehen bai lehen hasi nintzan. Zenbait urtez, astez aste, lau Ebanjelioak bateratuz euskaralat itzultzen eta azaltzen ~~ez~~ nituen. Zerrenda horiek bilduz uste dut balitaken liburu gotor baten gaia.

Anartean erdaraz laguntzen nuen Bordeleko <u>La Liberté du Sud-Ouest</u> egunkari giristinoa

Baionan sortu zelarik eskuindarren <u>La Presse</u> deitu ninduten euskal kulturaz "billet" batzuen egiterat, erran nahi baita ohar arin eta labur batzu egin behar nituela. <u>Zazpi</u> sinatzen nituen.

Ordukotz hasia nintzen gazte batzuekin abertzale lanean. Hauteman ginnen iparraldeko aldizkarietan urrun zaudela gure ~~xxx~~ zedetarik; ez xuriek, ez gorriek ez gintuzten ulertzen.

<u>Eskual herrizaleek</u> ideiak baginituen ez xuriki mintzairaz eta ohiduraz, bainan langilen, laborarien, emazteen, eskualdeen, herrien, jendetaldeen eskubidez. Ez ginnen gordetzen giristino ginela, federalistak ginela, sendikaten eta kooperatifen alde ginela, hego-aldeko euskaldunen hauride ginela.

Nehez iragan zitazken orduan asmu horiek

ingurumeneko kazeetan. Erabaki ginuen Aintzina izeneko ilabetekari ttume baten jalgitzea.

Elizaren aldetik ez ginuen nahi erraitekorik izan zadin. Gazteek eskatu zautaten "programa" bat egin nezan ahal bezain argi eta zuhurra. Aitzinetik apailatu nuen Paris-eko Aita P. Lallement eta Yves de la Brière erakaspenez baliatuz: Cours de Droit international eta Principes catholiques d'Action civique. Aita Du Passage-k eskuetaratu zautan bere Morale sociale.

Muga horietan ibiliz Eskual lege zaharren mamia liburuxka batean bildu nituen gure pentsa-bideak. Aita Yves de la Brière jesuitak ikusketa zuen lan hori ahalik hoberena.

Frantsesez eta eskuaraz agertu zen Eskual-herriaren alde. Horri jarraiki zitzaion Aintzina, 1934-etik harat, 33 ilabetez..

Nihaurk kudeatzen nuen aldizkaria, lankide nituelarik zoin bere saitean Lassalle, Narbaitz, Jean eta Madeleine Jauréguiberry, Aranart, H. Lamarque, Piconnet, J. Hastoy, F. Hastoy, E. Léon, J. Mestelan, Mayi eta Michel Diharce, Larregnerie, Moleres, J. Diharce, D. Richter, eta abar.

Espainiako gerlak eta Europakoak funditu gintuzten

erranekin. Xurien alde nintzela errotik, ezin uka.

Joseph Garat, radikal-sozialistak Uztaritzen egin zuen bilkuran adiltzale aurkitu nintzan, xoko batetik orori oharka. Burua bero-beroa itzuli nintzan etxerat eta ene gisako artikulu bat igorri nion Le Courrier delakoari, bilkuraren berri emanez. Artikulua jostagarria zen eta ~~agertarazi~~ agertarazi zuten izenik gabe. Bainan Amédée Larrieu kazetaren zuzendariak eskertu nindukan eta sustatu irin bereko gauza batzuen izkiriatzerat.

Ene artikuluak ukan zuen elapide, nehork ez zuen pentsatzen norena zitakeen. Isil-isila egona gatik, frango berotua nintzen: luzaz bertsu ala prosa, jarraiki nintzaion Le Courrier horri. Bainan Action française-ko auzia hasteari utzi nuen Arla Saindurari jazarri baitzen kazetaren nagusia.

Euskarari lotu nintzanean, berehala ohartu nintzan euskal-prosa arras zailtu zela, hitzen josteraren legeak ez nezazkien zila. Hitz latoz ez nintzan izkiriatzerat menturatzen. Orduan bertsu egiten hasi nintzan, baizik-eta irakurleek poesiaren gorin emanen zituztela ene aldez bertzelako animuak. Eskualduna kazetan sortu zen Piarres Hirkia izeneko bertsulari bat Blaise Adema kalonjeak akulaturik.

Emeki-emeki ausartatu nintzan euskal prosaz

Beloken Vogel ene eskolakide batekin ikastegiko astekari bat sortu ginuen Le Palmipède izenekoa. Ez zen ixilikakoa. Agertu bainu, lehen Harizmendi jaun apezak so bat egiten zion, bainan aitor dut ez zela [illegible] gure gizona eta gure pikho eta zirikak alegeraki jasaiten zituela, umore onaren lagoretan. Egin erran gure eskola lagunen jostatzeaz bertze xederik ez ginuen.

1919-an Frankaltzetan ginen gerla ondoko lehen bozketak izan zirelarik. Hemezortzi urte nituen eta kazetak irakurtuz ~~ba~~ beroturik nintzen Garat, Hirigoyen eta Casemajor ezkertiarren kontra. Baionako Le Courrier egunkarian agertu zen izenik gabe Uztaritzen Garatek Hirigoyen-ekin egin zuen bilkuraren agerbidea. Bazterretan sustraik ongi hartu zuten, eta Amédée Larrieu zenak ustatu ninduen artzaina beretik emaiterat. Bietan galdetzerik ez zitzaion beharko. Prosaz eta bertsuz ari izan nintzan, hastapenean ~~bi~~ bozeri buruz, gero edozein gaiez, bainan beti beter eta galtzekin. Deus izenik gabe. Orduan ez nuen euskararen griñarik.

Euskarazi lehe nintzenean, ohartu nintzen euskal-prosa bizikê zaila zela, eta bertsuek gordetzen zutela euskal josteraren ez-jakina. Orduan bertsu egiten hasi nintzen eta Piarres Ilhia-ren izenaz jaurtzerik Eskualduna astekarian agertu ziren Blaise Adema kalonjeak on-harturik.

Emeki-emeki ausartatu nintzen prosan ~~eta~~ ~~euskaraz~~ idazterat bai Eskualduna kazetan bai 1924~~-etik~~ harat Gure Herria aldizkarian, Apezlegui jaun apezak sustaturik.

~~Tolosan estudiant nintzelarik Baionako Baruck andere sindikalista batek dei egin zautan neskatoko feminista batzuekin nahi~~

zuela aldizkari ttipi bat jalgi. Izena kausitua zuten Le carillon des jeunes eta galdatzen zautan ea laguntzaile nuenetz, alegiazko izen baten pean. Pierrette Lake lotu zen lanari. Bainan Congrès bat egin baitzuten Bordelen ondoko herri batean, nahiko zuten Pierrette delakoaren hitzaldi bat. Pierrette-k errana egin zuen Andere Baruck-en bidez igorri zuen bere lantxoa. Bainan laster igorri nintzen Amerikatarat ene otoitza alegia joanik. Komedia honek bizpahiru urte iraun zuen.

Artean ~~nozi~~ noiz behinka zenbait berri edo lerroaldi igortzen nioizkan eskuaraz Eskualdunari. 1924-ean Michel Iriart Uztaritzeko erretorak hasi zuen Evanjelioaren agerrarazten bere barrukako argitasunez ezaguturik. 1929-an zendu zelarik Saint-Pierre jaun kalonjeak galdegin zautan ea M. I.-ren sartari jarraikitzeko nintzaion. Baietz eta zenbait urterik barne lan hori bururatu ~~n~~ nuen, askeak oroz ene Evanjelio zatia apailatuz. Uste dut ene obrarik hoberena den, nahiz luzexkoa. Sunbelet kalonjearen denboran eman nion azken hitza.

Sunbelet horren adiskidea nintzen, nahiz social gauzetan ez biziki ados; bannuen ene izkribu bat Hegoko Eskualdunen alderat, Saint-Pierre-k eman zautana. Ene ideiak nehez onhar zezazken bere askeharian. Ordutan bildu nituen ene ideiak Eskual-herriaren alde izeneko lan batean. Elizaren aldetik makurrik ez ukaiteko, liburuxka horren ekeia

LAFITTE: [Autobiografia]

igorri nion Yves de La Brière Aita Jesuitari. Erran behar dut haren kurtsoak irakurri nituela Larbildeik, ttima harta baino lehen nere bilduma hasterakoan. Trankilisatu ninduen Aretxo katedrakoari buruz eta erran behar dut nehork ere liburutegiari ez diola tokiarik atzeman ene kondenarazteko.

Orduan jalgi ginuen 1934-ean hilabetekari bat: Aintzina eskuaraz eta frantsesez idatzia: 32 zenbaki ukan zituen. Aldi bakotx hiruzpalau artikulu bederen ~~[illegible]~~ ene eskutik ateratzen ziren.

Bainan anartean ez nituen bertze kazetak baztererat utzi, salbu Le Courrier. La Liberté du Sud-Ouest Bordelekoa eta La Presse Baionakoa adoxkideak nituen. Lehenean P.L. sinatzen nuen. Bertzean Zazpi, eta euskal kulturaz nankan solasa.

Gure herrian, ~~[illegible]~~ 1928-tik aintzina Emmanuel Souberbielle eta biak ginen zuzendari. Souberbielle jaunak erdarazko lanak biltzen zituen, nik euskarazkoak. 1939-ko gerlaraino iraun zuen gu bien zuzendaritzak

Aintzina-ren sortzeak ez zituen bazterrak oro salifatu. Batzuk ez zezazketen sofri gure euskaldungotzia, gure sozialgoa, gure korporatifgoa, gure antixinis… eta zenbaitek izengoitika ninduen « le rouge et le noir »: beltza, apezaren sotanaren gatik; gorria, sozialgoaren gatik.